

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea ibilgailuak espaloien gainetik sartzeko eta aparkalekua gordetzeko (pasabidea) ordaindu beharreko tasaren 2020ko zerga errola

Eginda dago udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu be-reziagatik (A epigrafea), alegia, ibilgailuak finken barrualdera espaloien gainetik sartzegatik eta horietan bide publikoan aparkalekua gordetzeagatik, ordaindu beharreko tasaren 2020ko errola. Hortaz, honen bidez, errola hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodun ez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errola behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2020ko otsailaren 20tik apirilaren 20ra.

B) Beteazte aldia: 2020ko apirilaren 21etik aurrera beteazte aldia hasiko da, eta beteazte errekarguak, nola premiamentu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertzeko erre-kurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2020ko urtarrilaren 13a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ